**325/2022 Ebazpena, martxoaren 29koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariarena. Honen bidez, 12. lehentasuneko aldi baterako kontratazioko behin behineko zerrendak argitaratzeko agintzen da Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko web-gunean, modalitate hauei dagokienez: A.1 (Fakultatibo Mediku eta Teknikariak) lanbide-taldeetako bakanteen zerrenda eta ordezkapenen zerrenda.**

Osakidetzako Zuzendari Nagusiaren azaroaren 28ko 4235/2008 Ebazpenaren bidez (232. EHAA, 2008ko abenduaren 3koa), 2008ko Enplegu Publikoaren Eskaintza arautuko zuten oinarri orokorrak onartu ziren, Osakidetzan lotura estatutario finkoa eskuratzeko.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoko Administrazio Kontseiluaren 2011ko maiatzaren 9ko Erabakiaren bitartez (EHAA, 106. zk, 2011ko ekainaren 6koa), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan aldi baterako kontratazio zerrendak, 2008ko Enplegu Publikoaren Eskaintzatik datozenak, egin eta kudeatzea arautzen da.

2011ko maiatzaren 9ko Erabakiaren 17.2 atalaren arabera, urtean jasotako eskaerak 4. atalean aurkeztutako merituei buruz ezarritako irizpideen arabera barematu ondoren, 12. lehentasuneko zerrendak ordenatzen dira. Hori dela-eta,

**EBATZI DUT:**

**Lehenengoa**.- 12. lehentasuneko aldi baterako kontratazioko behin behineko zerrendak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko web-gunean argitaratzeko agintzea, modalitate hauei dagokienez: A.1 (Fakultatibo Mediku eta Teknikariak) lanbide-taldeetako bakanteen zerrenda eta ordezkapenen zerrenda.

2022ko martxoaren 30ean indarrean sartuko dira zerrenda hauek.

**Bigarrena**.- Ebazpen honen aurka erreklamazioa ezarri dakioke Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariari. Horretarako, hamar egun baliodunko epea izango da, ebazpen hau Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko web-orrian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteizen, 2022ko martxoaren 29an.

Osakidetza
Luisa Larrauri Ereñozaga
GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA
DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS

Iz.: Luisa Larrauri Ereñozaga
**OSAKIDETZAKO GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIA**



C/. Alava, 45 - 01006 VITORIA-GASTEIZ
Tfno. 945 006 150 - www.osakidetza.euskadi.eus

12. LEHENTASUNA PRIORIDAD 12

Kontratazio-zerrendak 2011 Listas de contratación

**Behin-behineko zerrendaren aurkako** **RECLAMACIÓN**

# 2011ko ALDI BATERAKO KONTRATAZIOKO ZERRENDAK

# LISTAS DE CONTRATACIÓN TEMPORAL 2011

**12. LEHENTASUNA: 2021eko urtarrilaren 01etik-abenduaren 31ra arte izena emandakoak**

**PRIORIDAD 12: Inscritos entre el 01 de enero y el 31 de diciembre de 2021**

| | |
|---|---|
| IZEN-ABIZENAK / NOMBRE Y APELLIDOS: | NAN / D.N.I.: |
| HELBIDEA / DOMICILIO: | TELEFONOA / TELÉFONO: |
| KATEGORIA / CATEGORIA: | |

**ADIERAZTEN DU** **EXPONE QUE:**

**Behin-behineko zerrendan horrela agertzen da:** **En la relación provisional aparece como:**

(Gurutze batekin adierazi) (Señalar con una cruz)

| | | | |
|---|---|---|---|
| | Onartua | Admitido/a | |
| | Ez onartua | Excluido/a | |
| | Ez da agertzen zerrendan | No figura en la lista | |

**Erreklamazio arazoak:** **Motivos de la reclamación:**

| | | | |
|---|---|---|---|
| | EPE puntuazioa | | Ez du egiaztatzen IT txartelarik |
| | Lan esperientzia | | Jabetzako plaza |
| | Hizkuntza eskakizuna | | Lehentasun eta kategoria honetan inskripzioa egiteko ez duzu eskubiderik |
| | Aukeratutako barrutiak (interinitateak) | | Ez du naziotasuna betetzen |
| | Aukeratutako zentroak (ordezkapenak) | | Ez du adinaren baldintza betetzen |
| | Ez du egiaztatzen eskatutako titulazioa | | Ez du gida-baimenik egiaztatzen |
| | | | Beste batzuk |

| | | | |
|---|---|---|---|
| Puntuación OPE | | No acredita IT txartelas | |
| Puntuación experiencia | | Plaza en propiedad | |
| Perfil euskera | | No tiene derecho a inscripción en esta categoría/prioridad | |
| Áreas elegidas (interinidades) | | No cumple nacionalidad exigida | |
| Centros elegidos (sustituciones) | | No cumple edad exigida | |
| No acredita titulación exigida | | No acredita permiso de conducir | |
| | | Otros | |

**Erreklamazioaren arrazoia laburbilduta adierazi eta beharrezko dokumentazioa erantsi:**

**Describa sucintamente el motivo de la reclamación y adjunte la documentación necesaria:**

| |
|---|
| |

__________ n 2022eko __________ aren ____ n En __________ , a ____ de __________ de 2022

Sinadura Erregistro Zigilua Sello de Registro Firma

*OSAKIDETZAKO GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIARI*

Araba kalea 45, 01006 Gasteiz

*A LA DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS DE OSAKIDETZA/SVS*

Calle Alava 45, 01006 Vitoria-Gasteiz